

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maritxu Arrieta Arrieta

*Donostia,
Gipuzkoa
(1925-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Altza herriko (gaur egun Donostiako auzoa) etxe batean jaio zen, eta urte eta erdirekin Pelegriñene baserrira eraman zuten bizitzera, izeba-osabekin. Bost senide ziren. Gurasoak altzatarrak zituzten: aita, igeltseroa ogibidez, Pelegriñenekoa eta ama Kataliñenekoa. Altzako plazako eskolan ibili zen Maritxu. Baserriko lanetan ibili da beti. Izeba Bretxako plazara joaten zen tratuarekin, zaldi-karroan; esnea ere partitzen zuten. Josten ikasi zuen, Martutenen. Etxera ezkondu zen, Felix Odriozola altzatarrarekin. Bost seme-alaba izan zituzten.

Zintak

DON-106

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-04-19
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Transkribatzailea(k):** Gallastegi, Maddi

Pasarteak

1. Baserrira bizitzera

- **Erref:** DON-106/003
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:03:22. **Bukatu:** 00:04:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Maritxuk urte eta erdi zuela izeba-osabekin bizitzera eraman zuten baserrira (aitaren jaiotetxera). Ama egunero joaten zen baserrira. Ama auzoko Kataliñene baserrikoa zen. Baserrian zein bizi ziren aipatzen du.

2. Jolasak

- **Erref:** DON-106/005
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:05:29. **Bukatu:** 00:07:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetako jolasak: kanikak, tabak, sokasaltoan, buleka... Tabekin nola jolasten den azaltzen du. Bihurrikeriak, kilker bila joatea... ditu hizpide.

3. Eskola garaiaz

- **Erref:** DON-106/007
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:08:15. **Bukatu:** 00:09:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Altzako plazan zegoen eskolara joaten zen Maritxu. Nesken maistrak Ermenegilda izena zuen, eta mutilen maisuak, berriz, Pedro. Erdaraz eta euskaraz ikasten omen zuten, baina Frankismo garaian hori aldatu egin zen. Etxean ez zien uzten erdaraz hitz egiten. Eskolan ez zuten otoitz egiten; etxean errezatu ohi zuten, amarekin.</p>

Transkripzioa

-Eta eskolara nora juten ziñan?

-Altza.

-Plazara?

-Bai.

-Eta han e zein zan maistra edo?

-Ahaztu're in zaizkit nei izenak. Maestra doña hermana Gilda genun, maestra. Eta mutillak zuten don Pedro.

-Eta ze ikasten zenuten, ze hizkuntzatan?

-Euskeraz, eo erderaz ta euskeraz.

-Biyetara?

-Bai. Baiño geo ya Franco jarri zanian, ya erderaz.

-Erderaz. Orduan igarri zan hor aldaketa?

-Bai.

-Ta Franco jarri zanian ez dakit, kastigatu ero iten zuten euskeraz hitz egin ezkeror?

-Ez. Ez genun hitz eiten-ta euskeraz. Nobedadia baitzan gutzat erderaz hitz eitia. Etxian ez genun hitz eiten e, aitag eta amak ez ziuten uzten erderaz hitz eiten etxian, euskeraz hitz eiten genun.

-Eta ze, hor e, eskolan ze ikasi zenun edo gogoratzen zea ze iten zenuten?

-Ba eze asko ez. Problema eta, sumar ta restar ta, gaiñekuan...

-Eta, otoitzak eta?

-Ez, ez. Etxian iten geñun otoitzak, amakin.

4. Dotrina eta meza

- **Erref:** DON-106/008
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:09:36. **Bukatu:** 00:10:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:

Dotrina Don Felix apaizarekin ikasten zuten. Apaiz zuzena dela dio. Gero, apaiza aldatu eta Don Kornelio jarri zuten. Apaiz horrekin otoitzak euskaraz ere egiten omen zituzten. Mezak latinez izaten ziren.

5. Ur bila

- **Erref:** DON-106/011
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:11:51. **Bukatu:** 00:12:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Baserrian bazuten ura, baina auzoko iturri txiki batetik ere hartu ohi zuten ura. Marmitan garaiatzen zuten ura. Ur preskoa azukrearekin edan ohi zuten.

6. Gorputzaren garbiketa

- **Erref:** DON-106/013
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:13:38. **Bukatu:** 00:14:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Ez zuten errekan bainatzeko ohiturarik. "Barriño" handi batean garbitu ohi zuten gorputza. Nolako komuna zuten azaltzen du.

7. Astigarragako Benta eta Txiki Erdi

- **Erref:** DON-106/015
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:14:02. **Bukatu:** 00:17:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>16 urterekin hasi zen lagunekin ateratzen zen. igandetan, Astigarragako Bentara edota Txiki Erdira joan ohi ziren. Han "bilera" egoten zen: Joxe soinujolea. Neska eta mutil elkartu eta dantzan aritzen ziren. Soltean eta lotuan egin ohi zuten dantzan, nahiz eta hasieran amak ez zien uzten lotuan dantza egiten. Neska-laguntzak...</p>

8. Altzako festak

- **Erref:** DON-106/017
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:17:53. **Bukatu:** 00:18:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Garai bateko Altzako San Martzial jaiak nolakoa izaten ziren azaltzen du. Soinurolaren bat, bertsolariak, idi-demak, harri-apustua, zinta-karrerak... izaten ziren (baina ez beti)

9. Alpargatak apurtuta etxera

- **Erref:** DON-106/019
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:18:46. **Bukatu:** 00:19:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Oiartzungo jaietara joan ohi ziren. San Markostik barrena, oinez, joaten ziren. Oinezko joan-etorria, dantzaldia... alpargatak apurtu egiten zituen. Dantzarako zaletasun handia izan du Maritxuk.

10. Martutenen josten ikasi

- **Erref:** DON-106/021
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:21:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Martutenen ikasi zuen josten. Etxerako josi ohi zuen, baina beste bi ahizpek Maritxuk baino gehiago josi ohi zuten (kanporako ere bai).

11. Eguneko eginkizunak

- **Erref:** DON-106/023
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:21:22. **Bukatu:** 00:22:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko bizimodua. Goizeko 06:00etan jaikitzen zen, baina ez zuen jakiten noiz oheratuko zen. Baratzeko lanak ilundu arte, ganaduari jatekoa eman (egunean hirutan), esnea bildu (goizean eta iluntzean)...

12. Iratzea, ordubetera

- **Erref:** DON-106/024
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:22:22. **Bukatu:** 00:23:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Baserritik ordubetera zegoen iratzea. Gurdiarekin eramaten zuten ira baserrira. Bi gurdi zituzten baserrian.

13. Baratzea

- **Erref:** DON-106/026
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:26:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserría » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Baratzean zer lantzen zuten azaltzen du. Porrua eta letxuga urte guztian ereiten ziren. Artoa eta babarruna, berriz, maiatzean erein eta udazkenean biltzen zituzten. Artoa abereei emateko izaten zuten; babarruna, etxerako eta saltzeko.

Transkripzioa

-Eta ze orduan baratzian ze izaten zenuten?

-Danetik. Ordun danetik iten zan baatzan.

-Urte sasoian arabera? Desberdiña?

-Bai.

-Ta, ze?

-Konpaziyo batea porrua, pues porrua urte guzin izaten zan, ta letxua ta hoi're bai, urte guzin izaten zan.

-Eta bestiak, noiz ereiten zan gauza bakoitza?

-Ba porrua ereiten zan normalian primaberan, eta geo ba aldatu iten zan zean, udaran, ta geo ya urte guzikua izaten zan.

-Ta babarruna ta?

-Babarruna ta normalian ba maiyatza aldea o hola, ereiten zan, ta geo bildu ba udazkenian.

-Eta artua?

-Artua ta babarruna alkarrekin, normalian.

-Ze iten zenuten, tartekatuta artua ta babarruna?

-Bai, bai. Bai zeatik babarruna geo makillan e iten zan, baiño normalian artuakin hemen.
-Eta hori asko ingo zan ba? Babarruna ta artua asko jango zan, ez?
-Bai, artua ganauentzat izaten zan, ta babarruna berriz etxeako o utzi ta, saltzeko're bai.

14. Behiak zezenetara

- **Erref:** DON-106/030
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:27:24. **Bukatu:** 00:27:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Behiak auzoko Putzuta baserri eramaten zituzten zezenetara. Behiak susa jartzen zirenean eramaten zituzten.

15. Txahalak saltzeko

- **Erref:** DON-106/033
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:29:09. **Bukatu:** 00:29:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txahalak hazi eta saldu egiten zituzten. Donostiako Sagüeseko hiltegira saltzen zituzten txahalak. Oinez edo automobilean joan ohi ziren Donostiara.

16. Txerri hazi eta saldu

- **Erref:** DON-106/034
- **Iraupena:** 0:00:45. **Hasi:** 00:29:52. **Bukatu:** 00:30:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txerriak hazi eta saldu egiten zituzten; normalean ez zuten etxean txerrik hiltzen. Txerriari jaten zer ematen zioten: artoa, txerri-jana (kalean, esnea saltzerakoan, kalean biltzen zituzten soberakinak...)

17. Etxez etxe, esnea banatzen

- **Erref:** DON-106/035
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:30:37. **Bukatu:** 00:32:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera

Laburpena:

Maritxu gazterik hasi zen esnea banatzen, 12 urte inguru zituela. Gros auzoko hainbat etxetan banatzen zuen esnea (30 litro inguru eramaten zituen). Esnearekin batera barazkiak eraman ohi zituen, eta soberan geratzen zitzaiona Bretxako azokan saldu ohi zuen. Bretxan postua jarri ahal izateko zerbait ordaindu behar izaten zen. Donostiara nola joaten zen: lehenbizi, astoarekin; gero, zaldi-karroan. Beranduago, automobileraz joaten zen.

18. Otorduak eta jakiak

- **Erref:** DON-106/036
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:32:51. **Bukatu:** 00:34:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Lehenengo otorduak: zer jaten zuten, noiz... Ogia erosi egiten zuten; okinak eramaten zien ogia baserrira. Kanean zer erosten zuten: ogia, txokolatea, azukrea... Arropak eta oinetakoak ere Donostian erosten zituzten.

19. Sagardoa, zizarra eta pitarra

- **Erref:** DON-106/037
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:34:59. **Bukatu:** 00:37:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

Baserrian dolarea zuten, eta sagardoa egin ohi zuten. Osaba arduratzen zen sagardoa egiteaz. Egunerokoan, etxean pitarra edaten zuten (sagardoa urarekin nahastuta). Zizarra: sagardo egin berria.

20. Erregeak, urte batean

- **Erref:** DON-106/039
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:38:04. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Urte batean, erregeek oparia ekarri ziela gogoratzen du.

21. Ohitura eta sinesmenak

- **Erref:** DON-106/041
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:38:57. **Bukatu:** 00:40:38

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Ekaitza izaten zenean, kandela pizten zioten Santa Barbarari. Ate ondoan erramu bedeinkatua jartzen zuten. Norbait hiltzen zenean, hilotzari ur bedeinkatua botatzen zitzaion erramuarekin. San Joanetan lizarra jartzen zuten.

22. Ogia bedeinkatu

- **Erref:** DON-106/044
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:41:41. **Bukatu:** 00:42:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Jatorduetan, mahai eta ogia bedeinkatzeko ohitura aipatzen du. Ogiari musu ematen zioten.

23. Medikuak eta "enplastera"

- **Erref:** DON-106/049
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:43:46. **Bukatu:** 00:45:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuak eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Don Leandro Aizpurua zen Altzako medikua. Haren ondoren, Don Roman Irigoien izan zen medikua. Don Leandro zaldiarekin ibiltzen zen. Don Romanen garaian, gaixoaren etxekoek haren bila joan behar izaten zuten. Auzoan, "Lauxkiñenean", "enplastera" bat bazen.</p>

Transkripzioa

-Ta esan dezu medikua lehenengo zala Aizpurua?
 -Don Leandro Aizpurua. Ta geo Don Roman Irigoien.
 -Eta nola ibiltzen ziran hoiek baserriz baserri? Oïñez ala zaldiyan?
 -Don Leandro zaldiyekin, zaldi gaiñian ibiltzen zan. Ta geo zea, esto don Roman ba, billa jun bihar izaten zan eo, segun.
 -Eta orduan abixatu iten zitzaion bere beharra eon ezkeru? Etxera, beran etxera juten zan billa?
 -Bai, bai.
 -Eta medikua asko etortzen zan etxera, ala oso larri eon beharra zeon medikuai deitzeko?
 -Ez, ez, ez zian, ez zian esijentzik e, ez zuten esijentzi asko.
 -Eta hemen kuranderorik edo "enplasterak" eta? Bazeuden?
 -Bai. "Lauxkiñenen" zan "enplastera" hemen, ta gue anaiya zea bat atea zitzaion, bi esto ordun zea esaten zan, berezkua o, zea, eta zeakin ibili zan, "Lauxkiñenen" o, "enplasterakin". Eta oiñaziakin bihetz hau [...] zeatu in

zitzaion. Oiñaziakin, desein.
-A bai e?
-Bai, bai.
-Jesus! Eta gero ondo jarri zitzaion?
-Ez, ez zun..
-Bihatza galdu in zun? Bihatza?
-Bai, bai.

24. Erditzea eta emagina

- **Erref:** DON-106/052
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:46:57. **Bukatu:** 00:50:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Maritxuk etxean eduki zituen haurrak, Nieves Aranburu emaginaren laguntzaz. Haurra jaio eta bularrean jartzen zen. Haur jaioberria ur epeletan garbitu behar izaten zen; gero, haurrari gerriko bat (tripa eusteko) eta telazko pardela jartzen zitzaizkion. Ordurako bazuten etxean telefonoa.

25. Haurraren bataioa eta amaren bedeinkazioa

- **Erref:** DON-106/053
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:50:15. **Bukatu:** 00:52:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

Lehen, haurra jaio eta ahalik eta azkarrena bataiatzen zen. Ama ez zen bataiora joaten (ez zelako gauza izaten), etxeko beste norbaitek eramaten zuen haurra (amonak edo aita edo ama pontekoak). Haurra izan berritan amari zegokionez zer ohitura zeuden (ezin etxetik atera elizara joan aurretik, elizara sartzerako bedeinkazioa jaso beharra...).

26. Haurra Ubara eramatea

- **Erref:** DON-106/057
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:53:39. **Bukatu:** 00:54:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak

Laburpena:

<p>Lehen, haurrak Ubako Ama Birjinarengana eramaten ziren lo ondo egin zezaten.</p>

27. Eliza eta kongregazioa

- **Erref:** DON-106/059
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:54:25. **Bukatu:** 00:56:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Elizaren eragina. Lehen dena bekatu zen; orain, berriz, ez dago bekaturik. Mariaren alabak kongregazioko kidea zen Maritxu. Bilerak eta hileko aurreneko igandean funtzioa izaten zituzten. Konfesioak, misioak, sermoiak... Mutilekin dantzan egitea galarazia zegoen.

28. "Umeak, Paristik"

- **Erref:** DON-106/061
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:56:55. **Bukatu:** 00:58:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Etxean ez zen sexuari edo hilerokoari buruzko azalpenik ematen. Umeak Paristik etortzen zirela esaten zien.</p>

Transkripzioa

-Eta zuei etxian eta esaten zizueten ez dakit amak edo, umiak nundik zetozen ta, umiak bueno edo sexua eta, zer zan eta?
-Bai, bai, ordun ez zan ez sexoik eta ez besteik.
-Ez zan?
-Ez.
-Ez zan hitzeiten?
-Ez.
-Eta zuek umetan eta ze pentsatzen zenuten umiak nundik etortzen ziala?
-Paristik!
-Paristik?
-Bai, hala esaten ziguten ta!
-A bai?
-Bai.
-Eta nola etortzen ziran Paristik?
-Auskalo, nola etorriko zien!
-Abioian, ez?
-Abioiyik [...] ordun.
-Eta, hillerokua etorri behar zanian eta? Esplikatzen zun amak edo? Etorri ingo zaizu edo zerbait ala?
-Ez, ez, etortzian etorriko da!
-A bai? Eta gero zuek juten ziñeten galdezka? Jakin nahian ze, zer zan ta?
-Bai, bai ba.
-Orduan gauzak diferente iten zian, ezta?
-Ba! Ordun dana diferencia zan.

29. Garai bateko Altza

- **Erref:** DON-106/063
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:58:11. **Bukatu:** 00:59:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa

Laburpena:

Garai bateko Altza nolakoa zen azaltzen du. Altza kaskoa eliza eta hiru etxek osatzen zuten. Altza herria izan zeneko garaiaz mintzo da Maritxu.

30. "Guardabinoa" eta kontrabandoa

- **Erref:** DON-106/065
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 01:00:00. **Bukatu:** 01:02:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

<p>Ategorrietan "guardabinoa" egoten zen. Izebak olio eta ogi zuria ekartzen zituen kontrabandoan Donostiatik. Olio non ezkutatzen zuen kontatzen du.</p>

Transkripzioa

-Eta ez dakit beste hola guardak eta egoten ziren? Hemen?
-Hemen guarda, guardia zibillak noizian behin.
-Guardia zibillak?
-Bai.
-Eta hemendik Donostiarako bidian eta "guardabinosik" edo aduanarik edo egoten zan?
-Hemen ez zeatik mendiz juten balin bazan ez, baiño behetik juten balin bazan bai. Ategorritan.
-Ategorritan?
-Bai.
-Ta zuek nundik juten ziñaten? Goitik?
-Gu batzutan goitik eta bestietan behetik. Lehenbizi goitik, astuakin juten giñanian ta, ta geo ya automoillakin ta hasi nitzanian ba behetik.
-Eta zaldi-karrokin ta juten ziñanian ta hor e "guardabinoei" ta ze, ordaindu ber izaten zitzaien? Nola, edo?
-Ez.
-Ez?
-Ez.
-Ez zitzaien ordaintzen orduan produktuko edo?
-Ez, ez.
-Ez? Ez zuten kobratzen? Eta zein zan beraien lana? Kontrolatzea ia estraperloko konturik ero zeon?
-Klaro, klaro!
-Eta izaten zan kontrabandua?
-Bai. Bai.
-Bai?

-In bihar izaten zan.
 -Eta zer ekartzen zan kontrabandoko zer?
 -Gue izeba difuntak oliyua majiña at oliyo ekarri zun kontrabanduan.
 -Bai? Ta nundik ekartzen zun?
 -Donostitik.
 -Donostitik? Eta? Nola ezkutatzen zun edo? Zaldi-karruan gordetzen zun?
 -Bai. Ta batian zeak "guardabinuak" o ez dakit zenek [...] oliyua ba al zakarren ta ezetz ta zean ta, zean omen zula, hankartian.
 -Oliyua?
 -Oliyo boteilla, esaten zun.
 -Orduan ez zuten harrapatu?
 -Ez. Ez zien atrebitu-ta!
 -Eta ogiya, ogi txuriya ere ekartzen zan?
 -Kontrabanduan hua're!
 -Eta nun indakua izaten zan?
 -Ez dakit, ez dakit, izebak ekartzen zun.

31. Jatekoa entregatu behar

- **Erref:** DON-106/066
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 01:02:17. **Bukatu:** 01:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraostean, babarruna, irina... entregatu behar izaten zuten Donostian.

32. Apainketa kontuak

- **Erref:** DON-106/068
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 01:03:25. **Bukatu:** 01:04:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak

Laburpena:

Ilea etxean mozten zuten. Ez zuten makilatzeko eta depilatzeko ohiturarik.

33. Arropa eta oinetakoak

- **Erref:** DON-106/069
- **Iraupena:** 0:00:26. **Hasi:** 01:04:12. **Bukatu:** 01:04:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lanerako eta jaietarako arropa eta oinetako desberdinak erabiltzen zituzten.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com